

Txistulariak

Antonio Etxeberria Olano (Anton Fitero)

- Erketanean jaio zen; Cayetano eta Enriqueta Doloresen semea.
- Amezketa jaio zen, 1916/02/01ean.
- Amezketa hil zen, 1973/05/12an.
- “Amezketako jazpana” taldeko kidea, bateria jotzen zuen.
- Txistua ere jotzen omen zuen, Joxe Joakin Beldarrainek atabalarekin lagunduta.

Jose Joakin Beldarrain Zabala

- Ugarten (Amezketan) jaio zen, 1880/05/12an.
- Amezketa hil zen, 1949/11/10ean.
- Atabala jotzen zuen, Anton Fitero txistulariari laguntzeko.

Gitarristak

Mikel F Krutzaga

- Gernikan jaio zen, 1971/05/10ean.
- Gernikako Musika Eskolan ikasi zuen solfeoa eta gitarra jotzen, azken hau irakasle japoniar batekin.
- Teklatua, perkusioa, baxua... ere jotzen ditu.
- Musikaria izateaz gain soinu-teknikaria eta grabazio-teknikaria da.
- Informazio gehiago honako helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.musikart-musikart.blogspot.com/>.

Iban Gurrutxaga Otamendi

- Amezketa jaio zen, 1975/01/01ean.
- Amezketa eta Laskorain ikastolan egin zituen UBI arteko ikasketak.
- Goi-mailako zikloa egin zuen Elgoibarko M.E.I.n eta Ingeniaritza Teknikoa Eibarren.
- Bergarako U.N.E.D.n Pedagogia egin zuen.
- Solfeoa, harmonia modernoa eta gitarra elektrikoa jotzen Andoni Arratibelekin eta Jorge Gonzálezekin ikasi zuen.
- Masterrak eta ikastaroak egin ditu hainbat irakaslerekin: Jean Marie Ecay, Jose A. Gereñu, Donostiako Jazzle, Roberto Javen, Musikarientzako Bartzelonan egindako lehen Seminarioa, Daniel Pérez, Jos Wuytack, Iñaki Salvador, Jesse Van Ruller, Martin Van Dergiten...
- 2008an, lizentziatura atera zuen Musikenen, guztien artean notarik onenarekin.
- Hainbat lekutan klaseak ematen ibili da: Tolosako Esnaola eta Urruzola Musika eskolan, Ibarako Uzturpe eskolan, Billabonako Flemin eskolan, Billabonako Herri Musika Eskolan, Adunako Eskola Publikoan, Ibarako Herri Musika Eskolan...
- Musikari moduan, beste zenbait taldetan ere parte hartu du: MARRUMA taldean, BASAJAUN taldean, ARREBA taldean, M_EZTEN taldean, Iker Goenagaren taldean, Tolosako Udal-Bandan, TRIKI TA KE taldean, GROOVE VOX taldean, DINAMIC TRIO taldean, THE VIF TRIO taldean, ORGANIC'S taldean, TRIFIDUS TRIO taldean, TRIKIZIO taldean...
- Horietako zenbait talderekin grabazioak ere egin ditu: Marrumarekin, Iker Goenagarekin, arrebarekin, Jo ta Ankarekin, Trikiziorekin, Euskadi Irratian kontzertuak Ander Garcíaekin.

- Hamaika obra konposatuak ditu.

Jon Gurrutxaga Otamendi

- Amezketan jaio zen, 1980/06/24an.
- UBI arteko ikasketak egin zituen.
- Saltzaile-lanetan ibiltzen da.
- Musika:
 - o Gitarra Iban anaiak eta Alegiako Andoni Arratibelek irakatsita ikasi zuen.
 - o Gautxoriak eta PROBAK taldeetako kidea izan zen.

Mikel Goñi Sagastume

- Amezketan jaio zen, 1981/12/29an.
- Irakasle-eskolan musika arloko ikasketak egin zituen, eta irakaskuntzan egiten du lan.
- Akordeoa jotzen du, Amezketako Musika Eskolan ikasi zuen, Juan Kruz irakaslearekin.
- Gitarra jotzen Iban Gurrutxagarekin ikasi zuen.
- Panderoa jotzen Iker Goenagarekin.
- Pianoa ere jotzen du, bere kabuz ikasita.
- PROBAK taldeko kide izana.
- Musika eskolako kontzertuetan, zenbait ekitalditan eta Eguberrietan ere Amezketan jarduten du.
- Musika konposatzen du.